

# Arginzoniz etxebizitza

Aldacrak: Arginzonizgoxeko  
Ahozkoa: Arginsonis / Argisúri



43° 10' 38"

2° 35' 49"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

*"... la casería rústica titulada Arginzoniz de Suso o gojeascoa... situada en la barriada de Eitua jurisdicción de la anteiglesia de Berriz, que comprende ciento ocho estados cuadrados superficiales de planta solar, y la que se compone de una vivienda con piso bajo a manera de entresuelo, y de piso alto con sus correspondientes pisos, cuadras, divisiones y habitaciones..."*

DJE 2/63 or. (1866)

Bizitza bakarreko baserri honen gaineko lehen-dabiziko erreferentzia 1668koa da, *Arginzonis*, alegia (BAHP, A415/32.). Gerora, eta *Arginzoniz* izeneko beste baserrietatik bereizteko (**Ikus Arginzonisbeaskoa, Arginzonisbeaskoakesoria** eta **Arginzonizuriarte**), "de Suso" edo "Goxeascoa" erantsi zitzaion: *Arginzonis de Suso* (1704, Bizkaiko su-errodak) eta *Arginzoniz Goxeascoa* (1825, PE/1825). Inguruko auzotarren artean, *Arginsonis* edo *Argisúri* izenak erabiltzen dira baserri hau identifikatzeko.

Etxean bi bolumen bereizten dira, baserri askotan bezala. Baina honetan bitxiena ez da berriena, gehienetan den legez, ostekoa baizik, zaharrena. Etxe berria 1986. urtean egin zuten inguruetako tradizioari jarraituz, hots, puntu

erdiko arkudun atartea eta bina leiho aldamentan. Bigarren solairuan, antolamendu bera, baina arkuaren gainean leiho luze bat zabaldu zioten, eta gorengoko solairuan, balkoi luze bat. Teilatuaren formari egokitzeko, txoritokiak dauzka frontoian eta izkinako leihoen ordez. Hareharrizkoak dira etxe berriaren kantalak eta beheko solairuko bao inguru guztiak. Etxe zaharra, berriz, XVI. mendekoa da, harlanduen trazak ondo baino hobeto frogatzen duen legez, iluna, bao gutxirekin, baina puntu erdiko arkudun sarrera bikainaz.

## toponimia

*Izen honen etimoa uste baino ilunagoa da. Sarritan uste izan da hargin hitza dugula oinarrian, baina Mitxelenak ez du hori uste eta Arginzano eta Argiñano deitura eta leku izenekin lotzen du. Gauzak horrela ezagutzen ez dugun Arginzo moduko izen bat dagoela pentsatu behar dugu eta amaierak, -ano kasuetan bezala jabetza adierazten duen atzizkia izango litzateke. Ahoz ez da n-ren galerarik jaso, euskaraz espero genezakeen bezala, baina Arginsuri ere esaten zaiola ikusita badirudi izen ofizialaren eraginez mantendu dela -n hori.*